



EBAZPENA, 2020ko AZAROAREN 20KOA, PLANGINTZA ETA ANTOLAKETAKO ETA IKASTETXE ETA PLANGINTZAREN ZUZENDARIENA, ONDORENGOAK ARAUTZEKO: BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEEN KIDEGOKO, LANBIDE-HEZIKETAKO IRAKASLE TEKNIKOEN KIDEGOKO, HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALETAKO IRAKASLEEN KIDEGOKO, MUSIKA ETA ANTZERTIKO IRAKASLEEN KIDEGOKO ETA ARTE PLASTIKOETAKO ETA DISEINUKO IRAKASLEEN KIDEGOKO LEKUALDATZE-LEHIAKETAN 2020-2021 IKASTURTEAN ESKAINIKO DIREN LANPOSTUAK ZEINTZUK IZANGO DIREN ZEHAZTEKO IRIZPIDEAK.

1.- Irizpide bera erabiliko da lanpostu hutsak eta bigarren aldikoak zein diren zehazteko.

2.- Abiapuntua EHAAn argitaratutako lanpostuen zerrendako lanpostu kopurua izango da, ikastetxe, espezialitate eta hizkuntza-eskakizun bakoitzerako. Ondorengo kidegoetako lanpostuak baino ez dira hartuko kontuan: bigarren hezkuntzako irakasleen kidegoko, lanbide-heziketako irakasle teknikoaren kidegoko, hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen kidegoko, musika eta antzertiko irakasleen kidegoko eta arte plastikoetako eta diseinuko irakasleen kidegokoak.

Lekualdatze-lehiaketa honetan ezin izango dira inola ere sartu ikastetxearen lanpostuen zerrendan ageri ez diren lanpostuak, ezta lanpostu bereziak edo lan-legepeko langileentzat nahiz Irakaskuntza Ertainetako Institutu Teknikoetako irakasleen kidegokoentzat gordeta daudenak ere.

Era berean, lekualdatze-lehiaketan ezin izango da inola ere eskaini EHAAn argitaratutako lanpostuen zerrendan ageri den hizkuntza-eskakizuna edo derrigortasun-data ez duen lanposturik.

3.- Aurreko puntuko baldintzak beterik, lehiaketan eskaini beharko diren lanpostuak, printzipioz, 2020-2021 ikasturtean asteen dagokion espezialitatean eman beharreko irakastorduek 17 behintzat badituztenak izango dira, (18 ordu Hizkuntza Eskola Ofizialetako lanpostuetan), edo hondarra 12koa edo gehiagokoa dutenak, (maiatzaren 3ko 2/2006 Hezkuntzako Lege Organikoaren lehenengo xedapen iragankorrean xedatutakoaren arabera Maisu-Maistren Kidegoaren funtzionarioek bete ditzaketen lanpostuetan, beharrezko hondarra 16 ordukoa izango da). Ez dira inola ere kontuan hartuko antzeko espezialitateetako orduak ez eta zuzendaritza-karguengatik murriztutakoak, edo zentroko proiektuengatik edo beste arrazoiren batengatik murriztutakoak.

Lanpostuen hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data urtarrilaren 18ko 6/2000 dekretuan ezarritako irizpideen arabera zehaztuko da. Hori dela eta, lanpostuak euskarazko eta gaztelaniazko orduak baldin baditu, 2Hren epea beteta duen lanpostu bat izango da, kontuan izan gabe lanpostu horrek euskarazko zenbat ordu dituen.

4.- Arau orokor modura, lanpostu huts guztiak eskainiko dira, baita lanpostu hutsak hartzen dituztenek utzitakoak ere. Lanpostu huts edo bigarren aldiko bat bakar-bakarrik kendu ahal izango da, posible badago lanpostu hori desagertu egingo dela 2021-2022 ikasturtean, honako arrazoiarikoren bat dela eta:



4.1.- Aurreikuspenen arabera, ikastetxeko taldeen kopurua jaisteagatik (matrikulatutako ikasle kopurua gutxitzeagatik, curriculum-aniztasuneko edota Zereginen Ikaskuntzako taldeak desagertzeagatik, heziketa-zikloak desagertzeagatik edo ikastetxea ematen diren hizkuntz eskakizunak aldatzeko prozesu batean murgilduta egoteagatik).

4.2.- Irakaskuntzak bat egiteko edo integratzeko prozesuetan inplikaturako ikastetxeak (eskola-mapa).

4.3.- Lanpostu huts edo bigarren aldiko bat kentzea gomendatzen duten beste egoera batzuk, behar bezala justifikatuta daudenak baldin badira. Dagokion plangintzarako lurralde-batzordeak aztertu ahal izango ditu kasu bakoitzaren arrazoiak.

5.- Aurreko puntuan esaten dena baterik, Plangintza eta Antolaketako eta Ikastetxe eta Plangintzaren Zuzendaritzek lanpostu huts eta bigarren aldirakoen lehen proposamena idatzi beharko dute.

6.- Aurreko proposamena Hezkuntza Sailaren web-orrian argitaratuko da. Argitaratze hori posta elektronikoz jakinaraziko zaie sindikatu guztiei eta eraginpeko ikasteteetako zuzendaritzei, ikastetxeko irakasleei horren berri eman diezaieten.

10 egun naturaleko epe bat ezarriko da edozein irakaslek, bai bere kabuz edo beste batzuekin batera (departamentuak direla, klaustroak, zuzendaritza-taldeak...) eta edozein sindikatuk egoki iritzitako alegazio, iradokizun edo proposamenak egin ahal izateko, baina beti aldaketa proposatzeko arrazoiak zein den azaldu beharko da. Alegazio horiek dagokien lurralde-ordezkaritzan aurkeztu beharko dira.

7.- Plangintza eta Antolaketako eta Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariak, aldez aurretik beren zuzendaritzetako zerbitzuekin kontsultatu ostean, aurkeztutako alegazioak aztertu eta lanpostu huts eta bigarren aldikoei buruzko beste proposamen bat idatziko dute. Proposamen berri hori bidaliko zaie sindikatuei.

Proposamen berri hori, aurkeztutako zuzenketekin batera, Ikastetxeen eta Lanbide Heziketako plangintzarako lurralde-batzordeetan eztabaidatuko da. Bilerak horiei buruzko aktak idatzi beharko dira, eta aktetan zein akordiotara iritsi den jaso beharko da, eta baita zein desadostasun dauden ere. Akta horiek Plangintza eta Antolaketako eta Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariak bidaliko zaizkie, horiek behin betiko proposamena onar dezaten.

Gasteizen, 2020ko azaroaren 20an.

Eugenio Jimenez Ibañez

Nicolás Sagarzazu Alzua

IKASTETXE ETA PLANGINTZAREN
ZUZENDARIA

PLANGINTZA ETA ANTOLAKETAKO
ZUZENDARIA